

■ ARRAUNA

Hernani-Ubis eta Trintxerpek elkarlanerako akordioa egin dute

■ Bakoitzak bere trainerua aterako du, baina, bi tripulazioek entrenamendu bera egingo dute ■ Denboraldia hastean, elkarri arraunlariak utziko dizkiote ■ Hernanik 10garren urtea du aurten trainerua segidan aterez.



Hernani-Ubis trainerua gogor ari da denboraldi berrirako entrenatzen.

HERNANI-Ubis eta Trintxerpek (Illunbe) elkarrekin egingo dute lan 2002 denboraldian. Bi klubek lotu duten akordioak 3 puntu nagusi ditu:

- 1) Bi taldeek entrenamendu plan bera dute eta Trintxerpek zuzenduko du plan hori.
- 2) Denboraldia hasten denean elkarri arraunlariak utziko dizkiote, beharrik ikusten bada behintzat.
- 3) Trintxerpek bere arraun instalazioak utziko dizkio Hernaniri: trainerua uzteko lekua, entrenatzeko fosoa eta abar.

KONTRAKO EGOERAK
Hernani Arraun Elkartea eta

Trintxerpe ia kontrako egoeran daude eta hortik etorri da akordioa, Batis Larburu Arraun Elkarteko lehendakariaren hitzetan. Orain bata bestearen osagarri dira. Trintxerpe klub fuertea da eta arraunlariz ondo osatua dabil. Bere arazoa da arraunlari gehiegi dituela eta horiek martxan eduki nahi ditu; bestela utzi edo alde egingo dute.

Hernanin, berriz, justu beste aldekoa gertatzen da. Azken urteotan taldea behar bezala osatzen lanak darabilzki. Akordio honek ekarriko du denboraldi berria lasaitasun eta konfiantza gehiagorekin hasteko bidea.

MOTIBAZIO GEHIAGO

Trintxerpe ia urtero Kontxan sartzen den trainerua da. Haien batean entrenatzeak Hernaniko arraunlarietako motibazioa eta grina ere sartuko diela uste du Batis Larburuk.

Trintxerperekin egindako elkarlan akordioa ondo hartu da barruan ere: bai arraunlari artean, bai entrenatzaileak eta baita direktiban ere.

9 BERRI TRAINERUAN

Hernanin iaz 9 arraunlari berri hasi ziren eta 5ek utzi dute. Aurten ere, denera 9 berri sartu dira: 4 lehen ibili izandakoak, 3 jubeniletatik igoak eta 2 berriak.

Hernani-Ubisek nesken tripulazioa ere aterako du aurten, baina, jendez nahiko justu.

HARROBIA LANDU

Aurten Trintxerperekin elkarlanerako akordioa egin du Hernanik, baina, Arraun Elkartek garbi du harrobia lantzea dela aurrerako bidea. Hor pauso handi bat nola eman pentsatzen ere badabil: umeak zaletzeko zer egin, eskoletan nola sartu, Ibarluzen ea ezer antolatu litekeen. Baina, betiko korapiloa ikusten du hor Batis Larburuk: "Afizioa sortzeko ondo ibili behar da, eta ondo ibiltzeko afizioa behar da". □

Osiñagako auzo elkarteak gaur bilera

OSIÑAGAKO Auzo elkarteak bilera egingo du Arriatsun eta garrantzi berezia duena izango da, gainera. Batetik, auzoko zenbait arazori zer konponbide bilatu aztertuko dute. Eta, bestetik urte osoko lan plana zein den ere bilera horretan erabakiko da. Bi puntu horietaz gainera, zuzendaritza berritza egokitzen da aurten eta horri ere helduko diote gaur. Bilera Arriatsun da gaur eguerdiko 12:00etan. □

■ ERRUGBIA

Hernani - Iruña

Eguerdiko 12:00etan, Landaren.

■ BOLA

'Taldekakoa' Añorgan, gaur

■ Taldekako txapelketako bigarren eta azken tiraldia dute, egun osoan. Aurreko tiraldiko emaitza: Elur Txori 8garren 243 brilarrekin; CD Hernani 10garren 235ekin; Ur-Mia 11garren 233rekin. □

■ FUTBOLA

Oiartzun 0- Hernani 0

ZINEA BITERIN

Pinocho, 17:00etan
Sin noticias de Dios, 19:30etan.

Poltsak, lepokoak, pitxiak, lurrinak eta abar

MERKEALDIETAN GAUDE

URDIN Osagarri Denda
Montebideo kalea 1
(EPO eta atletismo pista artean)
- HERNANI -

AMEGAR, C. B.
ETXE TRESNAK
SUKALDE ALTZARIAK
HORMA ARMARIOAK
Neurrira egiten ditugu.
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK - TB - BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK
Erkerro
Fruituak
Antziola 2
20.120 HERNANI

Bertako produktuak
Fruitu exotikoak
Telefonoz eskatzeko:
943 33 32 75
Orain helbide berrian
gaituzu:
ANTZIOLA 2

JOMER
EDARITEGIA
Kale Nagusia, 7
55 00 32
HERNANI

SANTA BARBARA
PEUGEOT

PEUGEOT
Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoaz aldatzen ditugu

Peugeot 306	XSD	10.066,95 euro
Peugeot 106 - 5 ate	Diesela	4.056,83 euro
Peugeot 205 - 5 ate	1.4	3.485,87 euro
Ford Scort - 5 ate	16 balbula-gorria	3.305,57 euro
Citroen AX - 5 ate	Diesela	2.343,95 euro
Seat Ibiza - 3 ate	Diesela	2.253,80 euro
VW Polo G.T.	1.3	1.803,04 euro
Seat Malaga 4p.	1.5	1.682,83 euro
Ford Escort	Diesela	1.652,78 euro
Peugeot 309	1.6	1.141,92 euro
Peugeot 205 5p.	Gasolina	1.021,72 euro

BAI EUSKARARI AKORDIOA HERNANIN

100 gizarte eragileren konpromisoa eta enpresa munduari planean sartzeko deialdia

■ Juan Bautista Biurrarena: "jerente, komiteak eta abar animatu enpresetan orain dela 25 urteko euskeraren aldeko giro hura piztera" ■ Jende asko bildu zen atzo firma ekitaldian.



Gizarte eragileetako ordezkariak firma ekitaldian. Jose Mari Usozek ezin izan zuen etorri, eta haren ordez, Biurrarenak hitz egin zuen.

HERNANIKO 100 gizarte eragilek sinatu zuten atzo Bai Euskarari Akordioa. Kontseiluaren inizatiba Hernanin aurrrera daraman elkarteak firma ekitaldi publikoa egin zuen atzo eguerdian Plaza Berrian.

Musika Eskolako musikok hasi zuten ekitaldia eta lehenbizi eskerroneko hitzak etorri ziren. Elkarteko aurkezleak industria mundua eta sindikatuak eskertu zituen, "beren esportazioetan euskera ere esportatzen dutelako"; irakaskuntza eskertu zuen "umeak etorkizun euskaldunean bizitzeko prestatzen dituztelako"; eta, ostalar,

merkatari, talde eta abarrak eskertu zituen egunero euskeraz bizitzen laguntzen digutelako. Eta horiek denekin batean, Plaza Berrian bildutako denentzat izan ziren eskerrak, ideologia eta pentsamendu guztien gaintik euskera indartu nahi izateagatik.

SEKTOREKA

Ondorenean firma ekitaldia hasi zen. Akordioa sinatu duten 100 gizarte eragileak sektoreka igo ziren tabladura beren firma botatzera. Lan mundutik 19 enpresa eta sindikatuk sinatu dute; merkatariza sektorean 26

establezimenduk; zerbitzuetan 10 izan dira; hezkuntzan 9; eta elkarteetan 43k sinatu dute.

Akordioak Hernanin duen Jarraipen batzordearen ize-nean, Biurrarenak enpresa mundua animatu zuen plan honetan inplikatzera. Mertxe Etxeberria alkateak esan zuen orain etorriko dela diagnosiak egin, helburuak markatu eta plan konkretuak martxan jartzeko garaia. Kontseiluko ordezkariak jendea lanera animatu eta adierazi zuen hernaniarrak ez direla bakarrik arituko, beste 1.000 gizarte eragileren babesean baizik. □

Jubilatu Egoitzan presidente berria aukeratuko dute otsaileko batzarrean

■ Jubilatuen da Hernaniko elkarerik haundiena: 2.400 inguru bazkide ditu.

JUBILATU Etxean urte biz behin aldatzen dute junta. Oraingo taldeak 2000garrenean hartu zuen zuzendaritza; aurten dagoen erreleboa hartzea, beraz.

Egin beharreko lana da "oraingoari segitzea" juntakoen hitzetan "eta talde berriak imajinaziorik badu zerbait berria egitea ere bai". Oraingo taldekoek ez dute jarraitzeko asmorik "baina, lagundu, nahi duen guztian lagunduko diogu talde berriari" esan digute. Egin beharreko lana ez omen da gogorra, eta sortzen den giroa, berriz, primerakoa "sarri, bat edo bi etorritako nahikoa da, baina, danok

azaltzen gara, kuadrilan giro ona daukagulako". Zuzendari lana hartzeko prest dagoenak izena eman lezake orain edo batzarrean bertan.

ESKURTSIO, TXARLA...

Orain arteko juntak bi urte hauen balorazio ona egin du. Egunetako lau eskurtsio egin dituzte: Galiziara, Almeriara, Jacara eta Playa de Harora, eta egun pasakoak, asko. Gehienak jendez gainezka egin dira, eta lekuri ez eta etxean gelditu denik ere bada. Gainerako zerbitzu, iganderoko dantza, txapelketa, hitzaldi eta abarretan jendeak ondo erantzun

duela diote. "Gipuzkoa mailan Jubilatutik onenetakoa dugu. Ez dira inon hemen adina gauza egiten. Gure bidea segitzen hasi dira zenbait herritan" aitortzen dute.

Bi urte hauetako arantza, Goiz Eguzkiko gazte batzuekin izandako arazoak dira "bi urtetan ez dugu arazo konpondu. Ez da erraza izango, baina, udaltzainek ere zerbait gehiago egin behar zuten" diote.

Otsailaren 5ean Hernaniko elkarerik haundieneko junta da berritzera dijoana; horretarako erreleboa hartzeko prest dagoen lehendakariaren bat behar da. □

JASOTA BEZALA

ELKARTASUNA

Hernaniko LAB-ek bere elkartasuna erakutsi nahi die, SELAK-eko lantegian greban dauden langile guztiei.

Egunak ematen ari dira langile hauek borrokan, beraien eskubideen alde, lantegian segurtasun neurri zehatz batzuen alde, prekarietatearen aurka, 35 orduko lanasteko errebeindikazioa luzatzen ... mobilizazio ezberdinak aktibatuz. Guzti honengatik Hernaniko LAB-ek langilearen eskubideen aldeko greba txalogarri honetako partaideei bere babesa eskeini nahi die, borroka ikusten baitugu helburu hauen lorpenerako tresna egokia. Txalotu eta konpartitu egiten dugu SELAK-eko langileak daramaten borroka, eta langileok eta herritarrok animatzen ditugu deituko dituzten mobilizazioetan parte hartzera. Animo.....ta aurrera!

HERNANIKO LAB

BERTSOLARITZA

'Oxan' txapelkun



Jon Altuna Oxan txapela jantzita.

■ Merezi zuen irabazi zuen ostiralean VIIIgarren *Tabernetako Bertsolari txapelketa*, Oxanek. Jon Altuna Oxan izan da txapelketa honen sortzaileetako bat eta askotan gelditu izan da txapeletik oso gertu. Baina, aurten merezimentu osoz lortu du txapela jaztea. Leporaino bete zen Garin, eta sei bertsolarietarik parekotasun haundiko saioa egin zuten. Azkenean Aitor Barrenexea eta Oxanek jokatu zuten buruz burukoa, eta Oxan txapelkun. Xapo, Xanta, Aizpurua eta Joxe Angelek ere bota zituzten denbora askoan gogoratuko diren ale ederrak. □

PELOTA

Oiagak eta Esnalek irabazi

■ Bi hernaniarrek irabazi egin zuten ostiral gauean kiroldegian. Oiaga-Aldazabalek 22-13 irabazi zieten Oar Arteta-Zubiagari, bigarren mailako binakako txapelketako sailkatze fasean.

Esnalek, berriz, Ayori irabazi egin zion 22-11. Hernaniarrek laster ekingo diote, ofizialki binakako txapelketari. □

OKERRAK XUXEN

Atzoko Kronikan, ikurri-nari buruzko notizian jarritzen zuen Iganziro Iruin eta Lapazaran zeudela balkoian. Lapazaran ez, Jose Mari Irastorza zinegotzia zegoen Iruinekin.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Gomez Nagusia 15 ☎ 943 554892
- ▶ Gaez: Ansa Andoain. Ondarreta ☎ 943 591302

ARALAR TABERNA
ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10



Bikain
OKINDEGI TA GOZOTEGIA
Eguneroko ogia beti Bikain...
Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI